

# Abenduko Egutegia 2023

Nork? Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleek, maila zein hizkuntza bereko edo diferenteko bikoteka.

Noiz? Abenduaren **11tik 22ra (biak barne)**, astelehenetik ostiralera.

Zer? Egunero, **goizeko 9etan**, galdera bat zabalduko da Hizkuntza Eskolako hizkuntza ofizialetariko batean.

Galdera zein hizkuntzatan dagoen, **erantzuna ere hizkuntza horretan** eman beharko da. Ikasleek 24 ordu izanen dituzte eguneko galderari erantzuteko. Epe hori bukatutakoan, galdera itxi egingen da.

Egutegia non aurki daiteke? Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren **webgunean**.

Nork irabaziko du? Galdera gehien asmatzen dituenak; berdinketarik balitz, zozketa egingen genuke.

Bada saririk? Izanen ez da, bada! Horixe baietz! 50 euroko balioko **material didaktikoa** jasoko duzue.

Izena emateko, zer egin behar da? Bikote bakoitzak **inprimaki** hau bete behar du, **abenduaren 10eko 23:59** baino lehen. Eta gogoratu, jokatzeko posta elektronikoko **HELBIDE BERA** erabili behar duzu **BETI**.